

## ANA OTADUI BITERI, BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO PRESIDENTEA IZATEKO HAUTAGAIA

“Harro eta pozik”. Hala sentitzen da Ana Otadui Biteri (Elorrion, 1976ko maiatzaren 10ean jaioa) hurrengo legealdirako Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentegai aukeratua izan dela jakin ondoren. “Harrotasuna sentiarazten dit EAJ-PNVko alderdikideek orain arte eginiko lana onesten eta baloratzen dutela ikusteak” eta “pozik jartzen nau legealdi honetan hasitako proiektuei jarraipena eman ahal izateak”, zehaztu du. Bizkaiko Ganbera Legegileko presidente andrearentzat “erantzukizun handia” da “halako erakunde baten buruzagitzan egotea”, eta dagokion tokitik buru belarri saiatu da Jaurerri zaharrear emakumeek iraganean izan zuten eta orain aldiaren duten eginkizuna ikusaraztea. Bere balio historikoa galdu gabe, Batzar Nagusiak XXI. mendeko Parlamentu bihurtzeko ahalegina egin du, hurbilagoa eta arinagoa, herritarren kezka eta arduraren berriei egokiro erantzutera begira.

Otaduiarentzat azken hiru urte hauetan “ikas prozesu etengabea eta lan handia” izan dira nagusi, eta bere ahalegina bideratu du Bizkaiko Parlamentua hiritargo osoari zabaltzera eta ezagutzera ematera. “Parlamentu honetan egiten dugun lana eta Gernika, Abellaneda eta Bilboko egoitzak zabaltzea eta ezagutzera ematea dira nire obsesiorik handienetakoak”, aitortu du Otadui. “Historia luzea daukan Parlamentua gara, baina oraina eta etorkizuna ere baditugu. Azken hilabeteotan batzarkide talde bat hiritargoaren parte hartze handiagoa bultzatzeko moduak aztertzen aritu izan da. Eman ditugun aurrerapausoek jabetzen gara, baina lantalde honek eman beharreko urrats berriak ezarri dizkigu Batzar Nagusiei eta Aldundiari; ibiltzeko prest gauden bidea da hori”, aurreratu du.

Batzar Nagusietako jarduera eta historia ezagutzera emateko eta ikusarazteko helburua betetzea xede, urtean zehar hainbat jarduera antolatzen dira. Esate baterako, Deiar mendia batera (Gorbea, Kolutza, Sollube, Oiz edo Ganekogorta) igotzeko urtero antolatu ohi den txangoa. Gailur horietatik, adin guztietako milaka bizkaitarrek entzun dute antzina egin omen den deiadarra, Gernikako Arbolaren pean egiten ziren bileretara deitzeko. “Nolabait esateko, herritarrei parte hartzeko egiten diegun deia da, Batzar Nagusiek gaur izan nahi dutena erakusten duelako: XXI. mendeko Parlamentua, hurbila eta eraginkorra, historia luze eta aberatsa gordetzen duena eta Gernika, Sopuerta, Abadiño eta Bilboko egoitzekin gure herrialdearen aniztasuna aldarrikatzen duena”, azpimarratu du.

Bizkaiko Parlamentua ezagutzera ematen lagundu duen beste jarduera izan da Deiar mendietako ultra trailaren lehen edizioa (Deiar Xtreme) eta presidente

andrea lasterketa antolatzeke lanetan aritu izan da. Proba hau irailaren 14tik 16ra bitartean egin zen eta ibilbideak bost Deiar Mendiak eta hiru Batzar Etxeak (Abellaneda -gaur egun Enkarterrietako Museoa-, Gerediagako foru zelaia eta Gernikako batzar etxea) lotu zituen lasterketa etengabe. “Gure aurreikuspen guztiak gainditu ditu: 300 kirolari eta 500 langile boluntario. Lehen edizio honek izan duen arrakasta ikusita, urtero antolatuko dugu kirol egutegiko klasiko bat bihur dadin”, aurreratu du.

Erakundearen zereginak ikusgarriago egiten lagundu duen beste jardura izan da, lehen aldiz, Europako Ondare Jardunaldietan parte hartu dela, aurtengo edizioan ‘Ondarea, emakumearen oinordetza’ izenburuean egin dena. Programa honek ahalbidetu du Batzar Nagusietako lau egoitzek, emakume historialari handien lanari esker, emakumeek gure Herrialdeko historian eta kulturaren egin duten ekarpen oparoa erakustea.

Baina, zalantzarik barik, Ana Otadui Biterik zuzentzen duen erakundea ikusgarriago egiten laguntzen duen jarduerarik esanguratsuen izan ohi da Gernikako Arbolaren kimuak landatzeko, Iparragirreraren esaldi ezaguna egintza bihurtzen duen tradizioa: “Eman ta zabal zazu munduan fruitua”. “Eta fruitu hori dira bakea, errespetua, elkarbizitza eta basakeria, gerra eta indarkeria mota guztien biktimei zor zaien oroimena”, ezarri du. Gernikako Aritzaren balioa aldarrikatzeko gogo honek eraman du Batzar Nagusien eta Bizkaiaren izena oroimen historikoarekin lotzen ditugun lekuetan landatzera, besteak beste Auschwitz-eko eremuan edo Sartagudako Memoriaren Parkean (Alargunen herria izenez ezagutzen den horretan). “Ohore handia da gure sinbolik unibertsalenaren eta estimatuenaren kimu bat landatzeko ekitaldian parte hartzea; Euskadiko herrietan edo gure mugetatik kanpo”, esan du, eta adierazi du bere helburuetako bat izango litzatekeela “kimu bat Vatikanoko lorategietan ikustea”.

## **BENETAKO BERDINTASUNA, BERE HELBURU NAGUSIA**

Elorrioko abertzale honen lidergoan, Bizkaiko Batzar Nagusiak aitzindari izan dira, Parlamentu gisa, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasun Plana onartzean. Benetako berdintasuna da Otaduiaren ardura nagusienetako “Ekimen sinbolikoak bultzatzeaz gain gure parlamentuan berdintasunerako urratsak eman ahal izatea bilatzen genuen”, azaldu du. “Aurrera egiten ari gara prestakuntza eta sentiberatze ekimenen bidez, lana eta bizitza pertsonala uztartzeko mekanismoak sortuaz, hizkera inklusiboagoa erabiliaz, keinu txiki baina esanguratsuak eginaz, besteak beste gure bi abizenak erabiliaz edo hausnarketa foroak eratuaz”, azaldu du.

Halaber, Otadui izan da Gernikako Batzar Etxean Emakume Hautetsien Batzarraren bultzatzaileetako bat. Batzar honek bere hirugarren edizioa egingo du laster eta 200 bat emakume hautetsi batuko ditu Gernikako Batzar Etxean. Topaketa honen helburua da “elkartzea, bizipenak elkarren artean partekatzea eta urrats sinbolikoak eta eraginkorrak ematea emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunean aurrera egin dezagun”, baieztatu du.

Ildo beretik, ekimen berritzaileak bultzatu ditu, besteak beste, Unicef erakundearen eskutik neska eta mutikoen egin ohi dituzten osoko bilkurak. “Azaroaren 16an hainbat eskola umek haurren eskubideei buruzko hausnarketa egingo dute, belaunaldi berrienetatik hasita, genero indarkeria desagerraraztea helburu”, azaldu du.

## **LAN ETENGABEA**

Hautagai jeltzaleak aurreratu duenez hauteskunde prozesuek ezartzen dituzten epeen arabera, datorren urteko martxoan desegingo da Ganbera. Baina, horretara heldu orduko “asko daukagu egiteko”. Aurrekontuen gaineko eztabaidari ekin behar diogu “sailez sail eman beharreko azalpenak aste honetan lantzen ari dira” edo Euskadiko Emakume Hautetsien III. Batzarra, 2019ko martxoaren 8aren inguruan egingo dena. Eta, hori dena, “oso luze eta zabala” den eguneroko jardunaz aparte. “Balantzea egiteko eta etorkizunerako proiektuak planteatzeko garaian sartuak gara jada. Batzar Nagusia moduko karga historiko handia duen ganberan lan egiteak are handiago egiten du bizkaitar guztien ongizatea hobetzeko erantzukizuna”, nabarmendu du.

Bizkaiko parlamentuko Presidente gisa egin duen lehen legealdiarekin, Otadui orain arte egin duen ibilbide politiko luze eta oparoa aberastu du. Hogeita hamar urteak bete berri zituela EAJ-PNVko bozeramaile ardurak hartu zituen Elorrioko Udalean (oposizioan), 2007-2011 urte bitartean, eta aldi berean Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkide izan zen. 2011 eta 2015 urte bitartean Elorrioko alkate izan zen eta 2015ean Herrialde Batzarrak Bizkaiko Batzar Nagusietako presidentegai aukeratu zuen.

Orain arte egin duen ibilbide profesionalak agerian uzten ditu bere izaera bizi eta arduratsua eta etengabe hobetzeko daukan borondatea. Bizkaiko Foru Aldundiko funtzionarioa da, gaur egun eszedentzian. Halaber, Durangoko Udalean ere lan egin zuen eta enplegu beka bat jaso zuen Deustuko Unibertsitateko Euskal Ikasketen Institutuan. Euskalduna da, Laugarren Hizkuntza Eskakizuna egiaztatuta dauka, eta ingeles hizkuntzaren ezagutza zabala dauka.

Irribarre batek janzten du beti Otadui Biteriren aurpegia. Emakume konprometitua da, ondo prestatua eta langilea; Deustuko Unibertsitatean Zuzenbidean lizentziatua zen eta bere burua deskribatzerakoan esan ohi du “emakume apala” dela “oso zaletasun sinpleak dituena”. Geratzen zaion denbora libre apurra aprobetxatzen du Elorriotik paseatzen ibiliaz burutik dabilzkion kezkek uxatzeko edo Agate alabarekin eta senide eta lagunekin bere herriko giroaz gozatzeko.

## **ANA OTADUI BITERI, CANDIDATA A PRESIDENTA DE JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

“Orgullosa y feliz”. Así se siente Ana Otadui Biteri (Elorrio, 10 de mayo de 1976) tras su reelección como candidata a presidir las Juntas Generales de Bizkaia la próxima legislatura. “Orgullosa de ver cómo la afiliación de EAJ-PNV valora tu propia labor” y “feliz de poder dar continuidad a los proyectos iniciados”, precisa. Para la actual presidenta de la Cámara legislativa de Bizkaia es una “especial responsabilidad estar al frente de una institución como esta”, en la que ha tratado de visibilizar el papel de las mujeres en el pasado y presente del antiguo Señorío. Sin perder el valor histórico, ha intentado también que las Juntas sean cada vez más un Parlamento del siglo XXI, más cercano y ágil a las preocupaciones de la ciudadanía.

Para Otadui han sido “tres años y medio de aprendizaje continuo y mucho trabajo” en los que ha puesto todo su empeño en dar a conocer el Parlamento de Bizkaia a la ciudadanía. “Abrir la actividad y las sedes de Gernika, Gerediaga, Abellaneda y Bilbao es una de mis grandes obsesiones”, admite Otadui. “Somos un Parlamento con mucha historia, pero también con mucho presente y futuro. En los últimos meses, un equipo de estudio de los grupos junteros ha trabajado sobre cómo propiciar una mayor participación de la ciudadanía. Somos conscientes de nuestros avances, pero esta ponencia nos ha sugerido nuevos pasos y obligaciones tanto a Juntas como a Diputación; un camino que estamos dispuestos a recorrer”, adelanta.

En su afán por hacer más visible la actividad e historia de las Juntas Generales, a lo largo del año se organizan numerosas actividades. Por ejemplo, la ascensión anual a una de las cinco cimas bocineras (Gorbea, Kolutza, Sollube, Oiz o Ganekogorta), lugar desde el que miles de vizcaínos y vizcaínas de todas las edades han podido oír el sonido del cuerno emulando la llamada primitiva que, según cuenta la leyenda, daba aviso de las reuniones bajo el Árbol de Gernika. “Me gusta considerarla una llamada tradicional a la participación ciudadana ya que simboliza lo que hoy quieren ser las Juntas Generales: un Parlamento del siglo XXI cercano y eficaz con una rica historia detrás con sus sedes en Gernika, Sopuerta, Abadiño y Bilbao simbolizando la rica pluralidad de nuestro territorio”, valora.

Otra actividad que ha servido también para dar a conocer el Parlamento vizcaíno ha sido la primera edición de la ultra trail Bocineros-Deiadar Xtreme, en cuya organización ha colaborado la actual presidenta. Esta prueba, que se celebró entre el 14 y el 16 de septiembre, consistía en unir, en formato ‘non stop’, los cinco

Montes Bocineros y tres de las sedes de las Juntas (casa de juntas de Abellaneda - actual Museo de las Encartaciones-, la campa foral de Gerediaga y la casa de juntas de Gernika). “Ha superado nuestras expectativas: 300 deportistas y 500 personas voluntarias. Tanto es así, que la organizaremos con carácter anual con el objetivo de que se convierta en un clásico del calendario deportivo”, avanza.

Otra acción que ha permitido hacer más visible los quehaceres de la institución ha sido la participación, por primera vez, en las Jornadas Europeas del Patrimonio acogiendo diversas propuestas culturales y que este año se cobijaban bajo el título ‘Patrimonio, herencia de mujer’. Este programa ha permitido que, las cuatro sedes de Juntas Generales hayan mostrado, de la mano de grandes historiadoras, la contribución de las mujeres en la historia y la cultura de nuestro Territorio.

Pero, sin duda, el exponente más notorio en dar visibilidad a la institución que preside Ana Otadui Biteri es la plantación de retoños del Árbol de Gernika, una tradición que hace realidad la conocida y popular frase del bardo Iparragirre que decía “Eman ta zabalzazu munduan fruitua”. “Y ese fruto simboliza la paz, el respeto, la convivencia y el recuerdo a las víctimas de las barbaries, de todas las guerras y de todas las violencias”, afirma convencida. Poner en valor el símbolo del Roble ha supuesto llevar el nombre de las Juntas Generales y de Bizkaia a lugares vinculados a la memoria histórica como el campo de exterminio de Auschwitz o el Parque de la Memoria de Sartaguda (también conocido como el ‘pueblo de las viudas’). “Siempre es un honor tomar parte en la plantación de un retoño de nuestro más universal y querido símbolo; en pueblos de Euskadi o fuera de nuestra tierra”, apunta, para continuar aclarando que uno de sus sueños de futuro sería “ver crecer un retoño en los jardines del Vaticano”.

## **OBJETIVO, IGUALDAD EFECTIVA**

Con el liderazgo de la abertzale elorriarra, las Juntas Generales de Bizkaia han sido pioneras, como Parlamento, en la aprobación de un Plan de Igualdad entre Hombres y Mujeres y es que impulsar la igualdad efectiva es una de sus principales preocupaciones. “Queríamos que, además de propiciar iniciativas simbólicas, en nuestro propio ámbito parlamentario se pudieran dar pequeños pasos hacia la igualdad”, apunta. “Vamos avanzando con iniciativas de formación y sensibilización, generando mecanismos para propiciar la conciliación, avanzando en un lenguaje más inclusivo, con pequeños gestos como utilizar nuestros dos primeros apellidos o generar foros para reflexionar”, explica.

Asimismo, Otadui ha sido una de las grandes impulsoras de la organización en la

casa de juntas de Gernika de las primeras Asambleas de Mujeres Electas Vascas que encaran ya su tercera edición y que congregan a 200 mujeres en el hemiciclo gernikarra. El objetivo de este encuentro es “juntarnos, intercambiar experiencias y dar pasos simbólicos y efectivos en común para avanzar en la efectiva igualdad entre mujeres y hombres”, afirma.

En esta misma línea, ha promovido iniciativas novedosas como la celebración, de la mano de Unicef, de plenos con la participación de niñas y niños. “El próximo 16 de noviembre, numerosos escolares profundizarán en los derechos de la infancia para reflexionar en cómo erradicar desde las nuevas generaciones la violencia de género”, revela.

## **TRABAJO CONTÍNUO**

La candidata jeltzale a revalidar el cargo avanza que, dados los plazos que marcan los procesos electorales, en marzo se disolverá la Cámara. Pero antes, “nos queda muchos trabajo”. Queda por delante el debate de presupuestos, “cuya exposición por departamentos se está celebrando esta misma semana” o la celebración de la III Asamblea Mujeres Electas Vascas en torno al 8 de marzo de 2019, aparte de la actividad diaria “que es muy extensa”, enumera. “Empiezan ya a ser tiempos de balance y de formulación de nuevos proyectos de futuro. Trabajar en una cámara con la extraordinaria carga histórica de las Juntas Generales supone una responsabilidad añadida con el objetivo de que contribuyamos a mejorar el bienestar de vizcaínas y vizcaínos”, subraya

Con esta primera legislatura al frente del Parlamento de Bizkaia, Otadui atesora una trayectoria política iniciada apenas cumplida la treintena como portavoz de EAJ-PNV (desde la oposición) en el Ayuntamiento de Elorrio (2007-2011), responsabilidad que compatibilizó con un escaño en el Parlamento Vasco. Entre 2011 y 2015 fue alcaldesa de Elorrio, hasta que en 2015 fue elegida por la Asamblea Territorial para presidir las Juntas Generales de Bizkaia.

Su bagaje profesional denota su carácter inquieto y su capacidad de superación. Funcionaria en excedencia de la Diputación Foral de Bizkaia, trabajó también en el Ayuntamiento de Durango y obtuvo una beca de empleo en el Instituto de Estudios Vascos de la Universidad de Deusto. Asimismo, domina a la perfección el euskera (cuenta con la acreditación PL4) y el inglés.

Con su perenne sonrisa, Otadui, licenciada en Derecho por la Universidad de Deusto, es una mujer comprometida, preparada y trabajadora que se describe

como “una mujer muy sencilla y con vicios muy simples”. El tiempo libre que le queda lo emplea en “despejar la cabeza paseando por Elorrio”, afición de la que se confiesa enamorada, o disfrutando con su hija Agate y sus familiares y amigos del ambiente de su localidad.